

10. GAIA: DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA

- I. Doako laguntza juridikoa eskuratzea.
- II. Doako laguntza juridikoaren onura jasotzeko eskubidea. 1. Kontzeptua. 2. Doako laguntza juridikoa lortzeko irizpideak. 3. Adierazpena. 4. Edukia. 5. Hedapena. 6. Iraungipena.
- III. Izapidetza.

I. DOAKO JUSTIZIA ESKURATZEA

Herritarren egoera ekonomikoak ezin du baldintzatu auzitegietara jotzeko eskubidea. Legeak saihestu behar du egoera ekonomiko desberdinek auzitegien aurrean ezberdintasunak sortzea.

Doako justiziaren **oinarrizko arauketa:**

- EK 119 art.: "Justizia doakoa izango da legeak hori xedatzen duenean, eta, edozein kasutan, auzietan aritzeko beste baliabiderik ez dutela egiaztatzen dutenentzat".
- BJLO 20. art.: "1) Justizia doakoa izango da legeak ezarritako kasuetan. 2) Doako justiziaren sistema bat arautuko da lege bidez, Konstituzioaren 24. eta 119. artikuluetan aitortutako eskubideak eraginkor bihurtuko dituen, auzitegietara jotzeko baliabiderik ez dagoen kasuetan. 3) Neurri desagokiagatik herri-akzioa baliaezin bihurtzen duen fidantzarik ezin galdatuko da; herri-akzioa doakoa izango da beti".
- Urtarrilaren 10eko 1/1996 Legea, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (DLJL). Horrek EK 119. artikulua aurreikuspena garatzen du.

1/1996 Legearen **aurreko egoera:** Dispertsioa. Ordena jurisdikzional bakoitzerako prozedura bereziak zeuden. Jurisdikzio-organo batek aintzatesten zuen doako justiziarako eskubidea.

Gaur egungo egoera: Prozedura administratibo bakarrean bateratuta daude. Horren abantaila: azkartasuna (\pm hilabete bat). Desabantaila: organo administratiboa da doako justiziarari buruz erabakitzen duena; halere, jurisdikzioak prozedura kontrolatzen du (organo administratiboaren erabakia jurisdikzioaren aurrean errekurritzea dago).

II. DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOAREN ONURA JASOTZEKO ESKUBIDEA

1. KONTZEPTUA

Doako laguntza juridikorako eskubidea: Izaera prozesaleko eskubide publiko-subjektiboa, akzio-eskubidea egikaritzeko edo prozesu batean aurka egiteko baliabide ez-nahikotasuna egiaztatzen duenari dagokiona; hau dela eta, prozesuak dakartzan gastuetatik erabat edo partzialki salbuetsita geratzen delarik.

Ezaugarriak:

- Eskubide subjektibo-publikoa. Herritarrok dugun eskubidea.
- Izaera prozesaleko eskubidea. Prozesuan bakarrik eragina duen eskubidea, auzitegien aurrean egikaritzen dena.
- Zertan datza? Prozesuan jarduteko diru nahikorik ez duela frogatzen duenari onura batzuk aintzatestean.

2. DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA LORTZEKO IRIZPIDEAK

A. Inguruabar ekonomikoak (DLJL 3, 4 eta 5 art.)

Eskubidea onartuko zaie ondare nahikorik izan ez eta sarrera ekonomiko gordinen honako atalasea gainditzen ez duten pertsona fisikoei (urteko eta familia unitateko zenbatuta):

- Familia unitaterik ez dutenentzat → Eragin Anitzeko Errentaren bikoitza ez gainditzea (Renta de Efectos Múltiples).
- Familia unitatea 4 kide baino gutxiagok osatzen dutenean → 2,5 x Eragin Anitzeko Errenta.
- Familia unitatea 4 kidek edo gehiagok osatzen dutenean → Eragin Anitzeko Errentaren hirukoitza.

Gerta daiteke, nahiz eta muga ez gainditu, pertsonaren gaitasun ekonomiko erreala kontuan izanik, eskubidea ez aintzatestea. Horretarako eskatzailearen ondarea izango da kontutan, baita kanpoko aztarnak ere.

Dena den, muga gaindituta ere, baina Eragin Anitzeko Errentaren boskoitza gainditzen ez badu, doako laguntza juridikoa aintzatesi ahal zaio familiaren egoera kontuan izanik: seme-alaba kopurua, osasun egoera, ezgaitasuna duten pertsonak...

B. Eskubide propioen babesean auzitan aritzea (DLJL 3.4 art.)

Doako laguntza juridikorako eskubidea onartuko zaie bakarrik eskubide propioen babesean dihardutenei, edota hirugarrenen legezko ordezkartzan oinarritzen direnean.

C. Uziaren sostengarritasuna (DLJL 15 II art.)

Egikaritu nahi diren uziak edo erresistentziak sostengarriak izan behar dira. Prozesu zibil, administratibo eta lan-prozesuan: Uzia edo erresistentzia oinarritu egin beharko da; horrela ausarkeriaz egindako uziak ekiditen dira.

3. ADIERAZPENA

Administratiboa. Deklarazio arrunta. Probintziako hiriburu bakoitzean Doako Laguntza Juridikoaren Batzordea dago. Interesatuak legeak ezarritako betekizunak bete beharko ditu (DLJL 2, 9 eta 10 art.).

Legala. Legeak zuzenean eta berariaz pertsona fisiko eta juridiko batzuei eskubidea aintzatesten die. Kasu horretan interesatuek ez dituzte baldintzak bete behar, eskubidea zuzenekoa delako. Adb. genero indarkeriaren ondoriozko biktimei; gizakien salerosketa delituaren ondoriozko biktimei; abusu edo tratu txarren biktimei adingabe direnean edo adimen-desgaitasuna/ gaixotasun mentala dutenean; lan ordenan Gizarte Segurantzako langile eta onuradunei... (DLJL 2. art.).

Nazioartekoa. Europar Batasuneko mugaz gaindiko auzietan doako laguntza juridikorako eskubidea aitortuko zaie Europar Batasuneko hiritar edo bertan legezko bizilekua duten pertsona fisikoei, merkataritza eta arlo zibileko prozesuetan soilik (DLJL 46-54. art.).

A) EDUKIA (DLJL 6. art.)

- Judizioz kanpoko laguntza juridikoa: Prozesua hasi aurretik doako aholkularitza juridikoa.
- Eginbide polizialetan atxilotuari nahiz presoari edo auzitegiaren aurrean lehenengo agerpenean doako laguntza juridikoa.
- Defentsarako abokatuaren eta ordezkarietarako prokuradorearen laguntza legeak horren beharrezkotasuna adierazten duenean edo epaitegiak eskatuz gero.
- Prozesuan zehar iragarkien edo ediktuen doakotasuna.
- Errekurtsoak aurkeztu ahal izateko beharrezko gordailuetatik salbuestea.
- Perituen doako laguntza.
- Dokumentu notarial batzuen doako eskuratzea (kopiak, testimonioak...).
- % 80ren beherapena arantzeletan eskritura publikoak emateagatik eta kopia eta testimonio notarialak eskuratzegatik; eta Jabetza- edo Merkataritza-Erregistroan emandako ziurtagirietan: oharrak, egiaztapenak, oharpenak...

B) HEDADURA (DLJL 1, 7. art.)

Doako laguntza juridikoa mota guztietako prozesu judizialetan da aplikagarri, babes-errekurtsoak barne, baita aurretiazko bide administratiboan eta prozesu aurreko aholkularitzan ere.

Eskatu den prozesurako onartzen da, hasieratik exekuzioa bukatu arte, auzialdi guztiak eta posible diren errekurtsoak barne hartuta (legearen 32. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz).

C) ITZULTZE EKONOMIKOA (DLJL 36 art.)

- Prozesuari amaiera ematen dion ebazpenak adierazten badu doako laguntzaren jasotzailea kostetan irabazten duela, kontrako alderdiak ordaindu beharko ditu sortutako gastu guztiak.
- Doako laguntza juridikorako eskubidearen titularra kostuak ordaintzera kondenatzen badute, bere gastuak eta kontrako alderdiarenak ordaindu beharko ditu, hurrengo 3 urteetan bere egoera ekonomikoak hobera eginez gero.
- Epaiak kostuen inguruan adierazpenik egiten ez badu, eskubidearen onuradunak auzia irabaziz gero, bere kostak ordaindu beharko ditu, prozesuan lortu duenaren 1/3 gainditzen ez badute.
- Eskubidearen onuradunari *litis expensas* eskaera onartzen zaionean, abokatu eta prokuradoreak haien ordainsariak galdegin diezazkiokete, epaileak zehaztutako mugara arte.

III. IZAPIDETZA

A) ORGANO ESKUDUNA (DLJL 9 eta 10 art.).

Organo eskuduna: Probintziako organo administratiboa = Doako Laguntza Juridikoaren Batzordea. Probintzia bakoitzeko hiriburuan bat egongo da.

Bere osaketa: Autonomia Erkidegoen mendeko Batzordeen osaketa → Abokatuen Elkargoko Dekanoa eta Prokuradoreen Elkargoko Dekanoa, edo eurek izendatutako abokatu eta prokuradorea, eta Administrazio Publikoak izendatzen dituen bi kide.

B) SUBJEKTU INTERESATUAK (DLJL 2 art.).

- Edozein pertsona fisiko edo juridiko.
- Espainiarrak edo atzerritarrak.
- Demandatzaile edo demandatu gisa jarduteko.

C) ESKAERA ETA DOKUMENTAZIOA (DLJL 12 eta 13 art.).

Eskaera: Idazki baten bitartez egingo da. Batetik, eskatzailearen egoera ekonomikoa aurkeztu beharko da eta hori egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu. Bestetik, legearen 6. artikuluan zerrendatutako zein prestazio eskatzen den adierazi beharko da.

Aurkezteko momentu preklusiboa (DLJL 8. art.):

- ❖ Demandatzailearentzat → demanda aurkeztea (prozesua hasi aurretik edo demandarekin batera eskatuko da).
- ❖ Demandatuarentzat → demandari erantzutea.
- ❖ Salbuespena: bat-bateko pobretasuna

Eskaria aurkeztea: Auziaz arduratuko den epaitegi edo auzitegiko lekuko Abokatuen Elkargoaren aurrean, edo bere bizilekuko epaitegiaren aurrean; azken horrek Abokatuen Elkargora helaraziko du eskaria.

D) FROGA (DLJL 4, 10.3 eta 17 art.).

Betekizunak egiaztatzeko **interesatuak** duen bide bakarra: **dokumentuak**.

Ikerketa ofizialaren printzipioa. **Batzordeak datu ekonomikoak egiaztatzeko beste frogabide batzuk** erabil ditzake: Ogasunari txostenak eskatzea, Erregistroetara, kontrako alderdiaren deklarazioak... Edozein momentutan egin daitezke.

Eskaria jasota, **akatsen bat egonez gero**, 10 eguneko epea emango zaio interesatuari zuzentzeko. Zuzendu ezean, bertan behera geratuko da eskaria (DLJL 14. art.)

Eskaria egin ondoren, Batzordearen iritziz egokiak diren dokumentuak aurkeztu badira, **behin-behinean ofiziozko abokatu eta prokuradorea izendatuko dira** doako laguntza juridikorako eskubideaz erabakitzen den bitartean.

E) ERABAKIA (DLJL 17 eta 18 art.).

Erabakitzeko gehienezko epea: eskaria aurkezten denetik 30 egun. Isiltasuna erantzun positibotzat ulertuko da.

- **Aintzatespenak** abokatu eta prokuradorearen izendapena baieztatzen ditu.
- **Ezespena/ukapenak** abokatu eta prokuradorearen behin-behineko izendapena bertan behera uzten du, eta gastuak eskatzaileak ordaindu beharko ditu.

F) AURKARATZEA (DLJL 20. art.).

Batzordeak emandako erabakia errekurritzea dago Doako Laguntza Juridikorako Batzordeko Idazkariari aurkeztutako idazki motibatuaren bidez. Idazkariak idazkia jurisdikzio-organoari edo Epaille Dekanoari helaraziko die, prozesua jadanik hasi ez bada.

Epailleak autoz erabakiko du Batzordearen ebazpena baietsi edo ezetsi. Errekurtso egileari zehapen bat ezar dakioke ausarkeriaz edo Zuzenbidearen abusuz jarduteagatik. Erabakia ezin izango da errekurritu.